

Garai historikoak zinemaren antologiara eramanda

Che El Argentino. Zuzendaria: Steven Soderbergh

Zineman sartzean *Che* maileguz hartu nion azken esaldia neraman buruan: "Ezagutzak arduratsuagoak egiten gaitu". *Biografia* irakurri nuen karteldegian. Uste nuen, filma, *Che* bera bezala, Bolivian amaituko zela. Filma Fidel Castro Habanan garaile sartzean amaitzen da ordea.

Steven Soderbergh zuzendariak bi partetan eraiki du pelikula: txuri-beltzean eta kolorean. Bi garai eta egoera historikoak kronologikoki nabarmen bereiziz. Filmaren eraketa egokia da oso, eta Ernesto *Che* Guevarak Nazio Batuen Erakundean (NBE) egin zuen agerraldi historikoaren erreproduktzioa bikaina, nire gustuko. Benicio del Tororen lehen argazkia, plano hurbila, *Che* bera zela sinestarazi zidan. New Yorkeko eta NBEko *Cheren* agerraldiak, hitzaldiak barne, antologikoak izan ziren. Soderberghek eta Del Torok une historiko hura zinemaren antologiara eramanez dute. Honek guztiak ez du beste parteak, kolorezkoa, gutxiesten. Alabaina, inpresio batzuk emanen ditut kontrasterako.

Del Tororen interpretazioa bikaina iruditzen zait. Gaztelania ez omen du ama hizkuntza, alta, zinez rol ttukuna jokatu du, jatorrizko hizkuntzan filmatu izanak asko hobesten du filma. Ingelesean edo beste hizkuntza batean entzutean

asko galduko du, nire ustez. *Cheren* ideologia ondo baino hobeto adierazia da txuri-beltzeko zatian hala nola kolorezkoan. Filma oso ondo filmatuta dago, berriz diot. Historiari fidel da. Fidel Castroren rolean ari den aktorea parodiaren muga-mugan badabil ere, nire gustuko.

Alta bada, filma iraultzara eta ideologiara mugatua ote den nago. *Che* edo Castroren ideologiak arrazoiz kritikatu izan du individualismoa, hots, norbanakoaren askatasun mugagabea. Alabaina, naski, filmari, teoria marxistari legez, –nire ezjakintasunean diot–, norbanakoaren baitan –*Cherenean*, kasurako– gehiago arakatzeko falta zaio. Gerora jakin nuen Soderberghek bigarren parte bat egina duela, *Guerrilla* izenekoa. Ikusiko!

Mende erdia bete duen iraultza XIX. Mendean hasi ote zen inpresioarekin utzi nuen zinema. Baina, hara, Fidel Castro, Kuba eta Iraultza mende honetakoak dira.



MIKEL ASURMENDI

Dagoeneko kalean!

ELHUYAR ikaslearen hiztegia

ELHUYAR ikaslearen hiztegia

26€

CD-Rom eta guztia!

28.100 hiztegi-unitate definituta - 23.300 sarrera - 39.300 adiera edo definizio - 19.000 adibide - 8.100 sinonimo eta antonimo - 4.800 azpisarrera - 1.025 ohar didaktiko - 330 hiztegi unitate, irudiz hornituak - 125 hiztegi unitate, gramatika-eta ulaz hornituak - Munduko estatuaren eta hiriburuaren izenak - Deklinabide-eta ulaz eta aditz-eta ulak

Argitalpen berria!

www.elhuyar.org/denda

ELHUYAR